

Asisko gutuna

2015ko Abuztua.

2. printzipioa.

Eguneroko bizimodua: barnerantz, umiltasuna

82. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Avilako Santa Teresak umiltasuna deitzen zion egiaren bilaketari. Izan ere, ondotxo dakigu, gure azala pixka bat urratu orduko, zenbat zoko ezkutu agertzen zaigun, eta zenbat indar gure usteko garen hori hankaz gora botatzen dutenak. Hor, gure biluztasunean, gure egian, garrantzitsuena ez da, ordea, geugan aurkitzen duguna, baizik eta, garen horretan, ematen zaiguna: garen garenean, geure biluztasunean, maitatuak izatea. Zorionekoak bihotz apalak, maitasun hori onartzen dakitenak.

Gogoetarako gaia

Bihotz apala

Gero eta mundu konplexuago batean bizi gara. Gazte garenean asko dira eskaintzen zaizkigun ibiltzeko bideak, bizitzeko esperientziak, gartzeko aukerak ... Bizitzan aurrera joan ala, korapilatuz doazkigu egindako aukerak, bidezidor berriak agertzen dira, definitzeko aukera berriak, kontuan hartzeko errealitate berriak ... Bizitza konplikaturik doazkigu konturatu gabe. Horrez gain gure gizartea ere gero eta anitzagoa eta konplexuagoa da. Pixkanaka labirintu gisa ikusten dugu geure bizitza, bertan gero eta galduagoak senti gaitezkeelarik. Bizitza xumearen irrikatan hasten gara. Egiaz merezi duten gauzetan asmatzea gusatuko litzaiguke eta ez-funtsezkoak albora uztea.

Pixka bat sakonagora joaz, gertatzen da mundua konplikaturik bagoaz, ez gutxiago geure buruak: hainbeste txoko ilun, hainbeste izur eta tolestura geure baitan: geure jitea, gizarte eta familia eta laneko harremanak, bizitzan hautabideak harrazten dizkiguten barru barruko motibazioak ...

Eta xume izan nahian, geure burua argitu nahian, hasten gara eta, geure konplexutasunaren erdian, pertsonagan eta bizitzan zentra gaitzaketen jarrera funtsezkoen alde jokutzen.

Sakon sakonean, era batera edo bestera, bihotz apala bilatzen dugu. Ez sinpletzarra, apala eta tolesturarik gabea baizik. Apaltasuna da, egiaz inportante denaren bila hasteko bidea. Lana eskatzen du, ahalegina, ikerketa, hausnarketa ... baina batez ere geure kanpoko eta barruko menpekotasunak erantztea, horrela geure bihotzean, bizilagunetan eta munduaren martxan esentzialak diren gauzak sumatzen eta hautematen ikasteko.

Tokatzen zaigun bizitza honen erdian bihotz apala da, zalantzarik gabe, Jainkoaren misteriora irekia dagoena. Jesus dugu izaera eta biziera horren erreferentzia-emaile handiena. Horrela sumatu zuen Frantziskok bere bizitzan.

Ebanjelioko pasartea: Mt 11,25-30

Behin batean, Jesus honela mintzatu zen: «Goresten zaitut, Aita, zeru-lurren Jauna, gauza hauek jakintsu eta ikasiei ezkutatu dizkiezulako eta jende xumeari agertu. Bai, Aita, goretsia zu, horixe izan baituzu gogoko. Nire Aitak nire esku utzi du dena. Eta inork ez du Semea ezagutzen, Aitak baizik; ezta Aita ere inork ezagutzen, Semeak baizik eta Semeak agertu nahi dionak. Zatozte niregana, nekatu eta zamatu guztiok, eta neuk emango dizuet atsedena. Har ezazue nire uztarria eta ikasi niregandik, gozoa eta bihotz-apala bainaiz ni, eta aurkituko duzue bizitzarako atsedena; eraman erraza baita nire uztarria eta arina nire zama».

Frantziskotar espiritualtasuna

Eta Jaunak anaiak eman zizkidanean, inork ez zidan erakutsi zer egin behar nuen, baizik eta Goi-goikoak berak agertu zidan Ebanjelio santuko moldearen arabera bizi behar nuela. Eta nik hitz gutxitan eta sinpleki idatzarazi nuen, eta Aita santu jaunak baietsi egin zidan. Eta bizimodu hau hartzeko asmoz zetozenek eduki zezaketen guztia behartsuei banatzen zieten, eta honako hauekin kontentatzen ziren: tunika bakar bat, barru eta kanpo adabatua, gerriko soka eta azpiko galtzak. Eta ez genuen beste ezer eduki nahi. Kleriko ginenok, beste klerikoen erara errezatzen genuen Ofizioa; laikoek, berriz, Gure Aitak esaten zituzten. Eta oso gustuko genuen elizetan egotea. Eskolagabeak ginen eta guztien menpeko.

Nik neure eskuz lan egiten nuen, eta egin nahi dut; eta tinko nahi dut, gainerako anaia guztiek ere lan egin dezatela lanbide egoki batean ... Eta lansaririk ematen ez digutenean, jo dezagun Jaunaren mahaira aterik ate limosna eskatuz. Jaunak agertu zidan, agur gisa hau esateko: «Bakea dizula Jaunak» Eta Jaunak ... hitz hauek sinpleki eta garbi esan eta idaztea eman zidan bezalaxe, uler itzazue zuek ere sinpleki eta oharririk gabe, eta bete itzazue azkenera arte jokaera santuz".

Otoitza

Emadazu, Jauna, bihotz berria.
Zurea bezalako bihotz haragizkoa.
Bihotz sentibera eta eman zalea,
sufritzen duten guztien minez hunkitzen dakiena.

Emadazu, Jauna, bihotz garbia.
Gibel asmorik gabeko bihotza.
Bihotz egiazalea,
kosta ahala kosta egia bilatzailea.

Emadazu, Jauna, bihotz alaia, egunez egun
zure maitasuna eta gorespina kanta ditzana.
Emadazu bihotz sutua,
zu ezagutzearen eta maitatzearen
ederra besteei helarazi diezaiena.

Emadazu, Jauna, bihotz apala,
dena eder ikusten duen haur baten bihotza.
Emadazu, Jauna, bihotz beti esker onekoa,
zure bihotzak maitatua sentitzen delako.

Emadazu, Jauna, gazte den baten bihotza.
Hunkitzen eta arriskatzen den bihotza.
Egun bakoitza, lehenengoa eta azkenekoa balitz
bezala,
bizi dezan bihotza.

Emadazu, Jauna, pobre denaren bihotza,
Zu zeu ez zaren guztiaz erantzia.
Bihotz apal eta zerbitzu emailea,
argia eta kemena Zugan aurkitzen dituen.

Emadazu, Jauna, bihotz berria,
jakin dakiena Zu zarela
Bide bakarra, funtsean dagoen Egia,
pil-pil dagien Bizia, babesten duen Maitasuna,
eta poza iragartzen eta itxaropenez betetzen
duen Bakea. Amen.

Gutuneko azken hitzak

“Apaltasuna da errealitatearekin bat egiten gaituena”. (Domenico Cieri)

2015ko abuztuko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen daukate abuztuko erreferentzia guztiak:

1 Mt 14, 1-12	8 Mt 17,14-20	15 Lc 1,39-56	22 Mt 23,1-12	29 Mt 25, 14-30
2 Jn 6,24-35	9 Jn 6, 41-51	16 Jn 6, 51-58	23 Jn 6, 60-69	30 Mk 7, 1-8.14-15.21-23
3 Mt 14, 13-21	10 Jn 12, 24-26	17 Mt 19,16-22	24 Jn 1,45-530	31 Mt 16, 21-27
4 Mt 14, 22-36	11 Jn 15, 4-10	18 Mt 19, 23-30	25 Mt 23,23-26	
5 Mt 15, 21-28	12 Mt 18, 15-20	19 Mt 20,1-16	26 Mt 23,27-32	
6 Mk 9,2-10	13 Mt 18, 21-19,1	20 Mt 22,1-14	27 Mt 24,42-51	
7 Mt 16, 24-28	14 Mt 19, 3-12	21 Mt 22,34-40	28 Mt 25, 1-13	

Abuztuko otoitzaldia 27an izango da.